



  
**Luzatu bostekoa**  
**eta PARTE HARTU**



**Gazteentzako**  
**Gida Didaktikoa**  
2020-2021 *Kanpaina Instituzionala*


 **Caritas**

# Aurkezpena

Bizitzen ari garen egoerak gogor astindu du mundua, eta kinka larrian jarri ditu ziurtasun asko eta asko. Egoera horren aurrean, hauskortasunak batu gaitu, eta galera-aren oinazean, gaixotasunean, eta beldurrean... Baina solidaritatean ere batu gaitu, eskuzabaltasunean, eta bestea aintzat hartu eta elkarri eskertuta egoteak. Eta Caritas horren guztiaren gertu-gertuko lekukoa izan da.

Balkoitik behera begira jarrita ikusi dugu mundua. Gure leihotik aldatu dugu mundua, han-hemenka itzaropena ernatuz, elkarri irriak opari eginez, nor bere burua eskainiz besteak zaintzeko... Elkarrengana hurbiltzeko aukera gutxien izan dugun garaian, orduantxe luzatu diogu eskua elkarri, batak bestea ukitu gabe elkar laztantzeko, zaintzeko, besarkatu gabe maitatzeko.

Uste zabaldua da daukagun oro merezita daukagula, norberak erositia, norbere lanaren ordain gisa jaso, edo besterik gabe, eskubidez jabetzan hartua izan delako. Krisi honetan, hain zuzen ere, horri buruzko iritzia aldatzeko aukera izan dugu. Eta konturatu gara gure ondasun guztiak, gure bizi-kalitatea hobetzen dutenak, elkarri lotuta egoteri eta interdependenteak izateari esker dauzkagula, eta orobat norberak gizarteari ematen diona berez dela baliagarri. Gutariko bakoitzaren lanak, berdin dio bizilagun gisa edota sendagile, banatzaile, okin nahiz beste zernahi gisa egiten dugunak, baliabide-sare batean lotzen gaitu batak besteari, eta horrexek hobetzen du denon bizitza. Keinu bakoitzak, elkarri eskua luzatzen diogun aldi bakoitzak, komunitatea josteko balio du.



## Zer ikasi dugun

COVID-19aren ondoren ere, bertiko giza arraza berbera izaten jarraitzen dugu: bizitza askatasunez goberna, zaindu, defenda, eraiki, sorberri, susta eta errukia senti zezan Jainkoak maitasunez sortu zuen huraxe, alegia. Oraingoan, ordea, gogotik ikasi dugu ahuldadea eta ziurgabetasuna direla nagusi bizitzan, zapaltzen dugun lurra ez dela dirudien bezain sendoa, xomorro bat aski dela dena hankaz gora jartzeko... Tragikoa ere eman dezake, baina mezua itxaropentsua da berez, bizitza bera duelako ardatz: Gure bizitza hauskorra da, bakarra. Edozein oldarraldik berdindu gaitzake lurrarekin, baina bizitza bat besterik ez daukagunez, aprobeitza dezagun, eskuzabaltasunez eta esker onez, ez baitakigu noiz arte egin ahal izango ote dugun. Ez gara betierekoak, ez eta munduaren zilborra ere.



Komunitate berri bat sortzeko aukera dugu. Bata bestearen bidera irten behar dugu, eta gure bizikidetzaren harmoniatsua izan dadin lortu, ez hain ernegagarria, elkar ulertuz oinaze sozial eta pertsonalak baretzeko gai izan gaitzen.

Bestalde, urrutze sozial ezinbestekoak, elkarrekin egoteko genuen modua ez ezik, kolokan jarri du elkarrekin egoteko gaitasuna bera ere. Jaiotzen garenetik, gizakiok besarkadaren beroa behar dugu, babesten, zaintzen... gaituztela sentitzea. Behar hori oinarri-oinarrizkoa da, eta gero ere, bizitzaren joanean, ez da sekula desagertzen, ezta hiltzerian gaudenean ere. Are gehiago: une sakratu horretan sentitzen dugu gehien besteen premia, eta orduantxe jartzen da martxan elkar zaintzeko, babesteko eta maitatzeko gure gaitasuna.

Bizitza hauskor horretan ere, agertzen zaigu Jainkoaren Erreinua. Jesusek konpainia egiten digu, eta bizkarrean eramaten gaitu beharra badago. Eta guk ere berdin joka dezagula eskatzen digu, solidarioak izan, eta bidean aurrera goazela, bestearen gurutzeari bizkar gainean har dezagula, alegia.

Bizitzen ari garen interdependentzia-egoerak, bi aurpegi dauzka: batetik, birusarena, negatiboa, oso kutsagarria dena eta heriotza, oinazea, tristura, bakardadea, pobrezia zabaldu bestetik egiten ez duena; eta, bestetik, solidaritatearena, positiboa, hau ere oso kutsagarria eta azkar zabalitzen dena, etsaiaren kontra denak batzen dituena, eta agendetatik eta albistegietatik bigarren mailako arazoak ezabatzea lortu duena. Hurbileko lagun hurkoa aurkitu dugu, izena eta aurpegia duen bizilaguna; hortxe ikasi dugu, solidaritate-/eskuzabaltasun-/erruki-keinu txikienen bidez, elkarri nola lagundu.


Ondare komuna lehenetsi dugu, den-denona den hori, norberaren interesen ginetik eta interes kolektibo garrantzitsuagoen mesedetan. Eta horrek balio komunitarioak lantzeko bidea eman digu.

Krisi honetatik ezin gara nor bere kasa atera. Denok eta bakoitza gara hauskorrak, eta elkarri eskutik hartuta egingo dugu aurrera, pazientzia handiz, eta begirada ahulengana jarriaz. Horretan, bakoitzaren indarrak eta gaitasunak besteenei batzea, egoera honetatik irteten lagunduko digu, eta elkarrekin gizarte, herri eta mundu gi-zatiarrago eta justuago bat eraikitzeko.

Karitatea martxan jartzeko garaia da, hauskortasun eta min egoeran daudenen alde jartzekoa. Eta, horretan, ezin zaintzak ahaztu: geure burua zaindu behar dugu, eta besteak, eta kreazioa. Fedearen lekuko izateko garaia da, senidetasuna sustatzekoa, eta esperantza errotzekoa.

Bizi izan dugun egoerak, oso gogorra izanagatik, abagune ugari ere sortu ditu. Kris-tau-elkarteak abegitsuago bihurtu dira krisi honen ondorioz, eta arretatsuago eta eskuzabalago jokatzen ikasi dute... Askoz ere biziago, bizitza besteen alde emateko prestatuago.

Besarka eta onar dezagun bizimodu berri hau, bihur dezagun Bizi Berri. Bere argi eta itzalekin. Jesus gure ondoan dago. Komunitatea dugu lagun.



Aurreko hori abiapuntutzat harturik, hauek dira aurtengo Kanpaina instituzionalaren helburuak:

- Gure komunitate, parrokia, auzoetan... guztion ongiaren eraikuntza sustatzea, zaintza, entzute, lankidetzeta eta elkartasunetik abiatuta.
- Bateratu, hitz egin, proposatu, hartu eta toleratzen duen eliz komunitatea sustatu eta erakustea. Jainkoaren bakearen tresna den Eliza, ahulenei itzaropena, laguntza eta inausketa emango diena.
- Lan arduratsu eta eskuzabala, indibiduala eta komunitarioa egitera gonbidatzea, sorkuntza errespetatu eta zaindu, eta pertsona guztiak bildu eta irekiko dituen gizarte gizatiarragoa eta bidezkoagoa lortzeko.



## Zer aurkituko duzu gida honetan?

Orriotan gogoeta eta konpromisoa sustatu nahi ditugu, bai indibiduala eta bai komunitarioa, gazte-taldeek Caritasen kanpaina instituzionalaren helburu eta ildoen berri izan dezaten. Horretarako, dinamika-sorta bat, ekintzarako zenbait proposamen eta otoitz- eta introspekzio-aldietarako material ugari aurkituko dituzue jarraian, bakarka nahiz taldeka lantzeko.

Dinamika bakoitzean, deskribapen bat eta haren bidez lortu nahi diren helburuak izango dituzue eskura; martxan jartzeko materialak; ekintzarako eta konpromisoa hartzeko proposamen bat, eta gogoetarako eta otoitzerako tartetxo bat.



## 1. jarduerara

# Nire eskuak zure eskuen lanabesak

## Helburuak

- Interkonexioa eta interdependentzia lantzea, eta talde-lana aintzat hartzea, norberak taldeari egindako ekarpenetatik abiatuta.
- Ingurune justu, solidarioago eta abegitsuagoak sortzeko lanetan norberak eta taldeak duten erantzukizuna azpimarratzea.
- Gure funtzioaz jabetzea Jainkoaren eskuetako tresna gisa.

## Materialak

Paper-lanetarako materialak: orriak, boligrafoak...

*Un mundo de contrastes bidera:*



[https://www.youtube.com/watch?time\\_continue=61&v=ebGNZiaQU3s&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?time_continue=61&v=ebGNZiaQU3s&feature=emb_logo)

*Hesia («La muralla») abestia/prema (Nicolás Guillén):*



<https://www.youtube.com/watch?v=qyGFRLcN-uE>

# Hesia

(Nicolás Guillén)

Hesi hau egiteko,  
ekarri denok eskuak:  
beltzek, beren esku beltzak;  
zuriek, beren esku zuriak.

Gure hesia luzatzen da  
hondartzatik mendiraino,  
menditik hondartzaraino,  
eta handik horizonteraino.

—Tok, tok!

—Nor da?

—Arrosa eta krabelina...

—Ireki hesia!

—Tok, tok!

—Nor da?

—Koronelaren sablea...

—Itxi hesia!

—Tok, tok!

—Nor da?

—Usoa eta erramua...

—Ireki hesia!

—Tok, tok!

—Nor da?

—Harra eta ehunzangoa...

—Itxi hesia!

Lagunaren bihotzari:

ireki hesia;

pozo eta aiztoari:

itxi hesia;

mirto eta mendafinari:

ireki hesia;

sugearen hortzari:

itxi hesia;

lore gaineko urretxindorrari:

ireki hesia...

Hesi hau eraikitzeko,

elkar ditzagun eskuak:


beltzek, beren esku beltzak;

zuriek, beren esku zuriak.

Gure hesia luzatzen da  
hondartzatik mendiraino,  
menditik hondartzaraino,  
eta handik horizonteraino.

## Zer egingo dugu?

Gure mundua justuagoa izateko, eta denok bake eta harmonia ederrean bizitzeko zer egin dezakegun imajinatzea da eskuen garrantzia azpimarratzearen helburua. Hasi jolasean gure gizartean hesiaz bestaldean daudenen inklusio eta zaintzen alde, eta jakin horretan ez zabiltzatela bakarrik, gure eskuak esku ahaltsu eta goxoagoen esku daudela, eta esku guztiak elkaturik, denok batera arrakalatuko ditugula inguruan ditugun hesiak, osatzen, garbitzen, sendatzen eta baketzen duen guztia barrura sartu eta suntsitzen, zikintzen, kaltetzen eta aurre egiten duen guztia kanpora atera dadin.



## Esanetik egitera

Eskuek presentzia handia dute gure bizitzan, eta ez fisikoki bakarrik. Hitz eta esapide ugari daude eskuen bidez ekintza eta gogo-aldarte ugari adierazteko erabiltzen ditugunak. Eskatu parte hartzaileei eskuak aipatzen dituzten esapideen zerrenda bat egiteko. Hona hemen zenbait adibide:

Eskua luzatu; eskulanak egin; eskutik eraman; esku hartu; eskuak jarri; eskua eman; eskua estutu; zerbait esku-beteka banatu; zerbait norbaiten eskuetan jarri; zerbait norbaiten esku egon; esku-erakutsiak egin; eskuz esku ibili; esku-hutsik gelditu; eskura etorri; eskura eman; norbaiti eskua jaso; zerbait esku onetan egon; norbait eskutik eduki; zerbaitetarako esku ona izan; esku-zarta; eskuak garbitu; eskubide; eskumen; eskuzabal...

Eman tarte bat esapide horiek guztiek zer esan nahi duten **komentatzen**. Era honetan, gure bizitzan eskuek zer-nolako balio erreal eta sinbolikoa duten konturatu tuko gara.



Ondoren, *Un mundo de contrastes* izeneko bideoa ikusiko dugu. Bertan, zenbait fotokonposizio aurkezten dira, zein baino zein probokatzaileagoak, oso diferenteak izanagatik bata bestetik oso hurbil dauden bi mundu aurrez aurre jartzen dituztenak. Itxuraz, keinu, antzekoak, baina kontrakoak, eta barrena nahasten digutenak. Errealitate interdependentek gure mundua irmoki babesten duen hesi batek bereiziak. Argi dago gu hesiaren zer aldetan gauden. Baina nora ote garamatza horrek?

**Eztabaidatu** irudiez: haiek ikustean zer sentitu duten; zeinek harritu dituen gehien, eta zergatik; zer emozio piztu dituzten eurengan; interpelatuta sentitu diren ala ez; ea zer uste duzuen, banatzen gaituen hesia eraitsi eta mundua batuko litzatekeen ala ez, eta hala balitz, zer gertatuko litzatekeen; guk zer egin dezakegun horren alde; gizakiok horretarako ahalik badugun, ala norbaiten laguntza behar dugun...

Gero, *Hesia* («La muralla») abestia entzun dezakegu, edota olerkia irakurri, eta denon artean hitz egiten aritu.

Batzuetan geure munduan ixten gara, nor bere taldean, eroso, gustura edo seguru sentitzen garen inguruneetan... eta kosta egiten zaigu besteei, sartu daitezen, gure atea irekitzea, beldur baikara horrek gure erosotasun eta segurtasuna hautsiko ote dituen. Ni ongi banago, zergatik arriskatu eta besteei sartzen utzi?

Baina hesia irekitzea ez du zertan hori esan nahi. Hesiaren barruan nor gauden eta bertara sartzen nori uzten diogun; horixe da gakoa.

Taldeka, idatzi zerrenda batean hesia nori ireki eta nori itxiko zenioketen, formula honen arabera: "Nik hesia .... irekiko nioke / Nik hesia .... Ixten diot". Gero, elkartu berri jardueran parte hartzen ari zaretenok, eta aurkeztu zerrendak batak besteari, eta elementuak gehituz eta kenduz, egin zerrenda bakar bat denon artean.

Horren ondoren, ekin denok solasaldi bati, eta ea jabetzen zareten gizakiok ez diogula bakarrik egiten hesiak ireki eta mundua zaintzeko lan horri. Eskuz osaturiko komunitate handi bat gara, eta denok ere Jainkoaren eskuetan gaude, hark zuzentzen du gure lana gizarte inklusiboago eta solidarioago horretatik barrena.

Amaitzeko, zuen zerrendak eskaintza modura aurkez ditzakegu bukaerako otoitzaldian eta esker-onoeko tartean.

## Hausnartzeko eta eskertzeko

Zoriontzen gaituzten eskuak, goxo-goxo hartzen gaituztenak, opari egiteko balio dutenak, zaintzen eta maitatzen gaituztenak, epeltzen gaituztenak; batzeko balio dutenak... Eraikitzeko eskuak, babesteko, eraldatzeko, lanerako, ematen eta jasotzen dutenak, esku zerbitzariak... Esku zakarrak, sendoak, orbainduak, handiak, bero eta suabeak aingeruaren hegoak bezain bero eta suabeak...

Maitasunez eta bizitzaz betetako eskuak, esku eredugarriak, sekula amaitzen ez den konfiantzaz hartzen gaituzten eskuak. Aitaren eta Amaren eskuak. Indarberritzeko, eta beti itzultzeko lekua.

Egin dezagun otoitz denok batera, eta jar gaitezen Jainkoaren eskuetan, bake-, harre- eta solidaritate-bide izateko.

### Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia (Kairoi)

Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia  
(Kairoi)



<https://www.youtube.com/watch?v=WK-lLiK9lXQ>

Aita, Aita, Aita:  
zure eskuetan jartzen dut bizia.

Egin bedi zure nahia,  
berdin da zer eskatzen didazun,  
eskerrak emango dizkizut,  
zernahi onartuko dut,  
baldin eta horrek balio badu  
nire bitartez, edo beste edonor tarteko,  
zure borondatea betetzeko.

Ez dut besterik nahi, Aita,  
ez dut besterik nahi.

Hemen naukazu, gorputz eta arima,  
gai naizen bezain maitekiro  
bizia zure alde emateko.

Bizia zure alde emateko,  
hemen naukazu, zure esku,  
konfiantza neurrigabez,  
konfiantza amaigabez,  
zu Aita zaitudalako.

# Zure eskuetan jartzen dut bizia

(Luis Guitarra)

## Zure eskuetan jartzen dut bizia (Luis Guitarra)



<https://www.youtube.com/watch?v=2P-XxlfAoGk>

Zure eskuetan jartzen dut bizia,  
ene Aita, bizia zure alde emateko.  
Egin bedi nigan zure nahia,  
zernahi onartzeko prest bainago.

Konfiantza amaigabez, Aita,  
zu Aita zaitudalako.

Jauna,  
zeuk nahi duzuna gerta dakidan nahi dut,  
zeuk nahi duzun bidea urratzeko.  
Lagundu zure nahia ulertzen.

Jauna,  
zeuk nahi duzun unea beti da egoki,  
eta prest naukazu zeuk nahi duzunerako,  
orain eta beti.

Jauna,  
zeuk nahi duzuna onartzeko prest naukazu,  
zeuk nahi duzuna beste irabazirik ez baitago,  
zeuk nahi izatea aski da horretarako.

Jauna,  
zeuk nahi duzulako, horregatik da on,  
eta zeuk nahi izateak adoretzen nauelako,  
zeure eskuetan atsedean dut hartzen.

# Zeuk nahi duzuna

(Beato Rupert Meyer)

## 2. jarduera

# Bizitza besteen alde ematearen oparia

## Helburuak

- COVID-19aren pandemian zehar sortutako lotura solidarioak sendotzea.
- Batzen gaituen interdependentziaren nondik norakoak erakustea, eta ulertzea besteei laguntzeak nola, besteei ez ezik, guri ere laguntzen digun.
- Komunitate eskuzabala bultzatzea, bertako hartzaileak eta pertsona ahulenak, zaintzen eta haien premiak asetzen dituenak.


## Materialak

“Vecinos” film laburra:



<https://www.youtube.com/watch?v=DzMqy5KPVIk>





## Zer egingo dugu?

CovidD-19aren pandemian, gutxi-asko denok bizi izan ditugu esperientzia zail eta mingarriak. Beldurra, aukeratu gabeko bakardadea, hildakoak, bizikidetzatirabirak... Baina orobat konturatu gara besteenganako interesak, zaintzek eta eskuzabalatasunak batzen gaituztela zaugarritasunak adina —birusa, txikia izanagatik, denok jo gaitzake—. Eskularruak, maskarak... erabili ditugu babesteko, eta gertukoenen premiei ere erantzun diegu aldi berean. Eta, sarritan, bizilaguna nor zen eta izen-deiturak zein zituen jakin dugu horri esker.

Pandemiak bizitzaren bi aurpegi erakutsi dizkigu: zaugarritasuna eta eskuzabalatasuna, ziurgabetasuna eta interdependentzia.

Konfinatuta egon bitartean bizi izandakoetatik abiatuta, zerk batzen eta humanizatzen gaituen aztertuko dugu, zalantzas jositako bolada honetan zer ikasi dugun azpimarratuko dugu, joan den hilabeteetan bakarka eta gertukoenekin batera hasitako solidaritatearen bide hori urratzen nola jarraitu ikasiko dugu, eta komunitatetik gizartera eta mundura nola zabaldu hausnartuko dugu.

## Esanetik egitera

Ez dago asmatzerik egoera nolakoa izango den material hauek lantzen ari zareten garaian —eta horrexek frogatzen du hobekien ez garela unibertsoaren zilborra, eta ezin dugula dena lotuta eduki—. Baina Covid-19aren pandemiaren ondorioz konfinamendu esperientzia bat igaro izanaren ziurtasuna dugu. Eta hortixe abiatuko gara.

Talde txikitan nahiz ikastalde osoan, hitz egingo dugu bizi izandakoaz. Solasean lagungarri gerta dakizuen, hona hemen galdera gutxi batzuk:

- Nola definituko zenuke, hitz pare bat erabiliz, konfinatuta egon bitartean bizi izan duzun esperientzia?
- Zeren falta sumatu duzu gehien bolada horretan?
- Eta zer kostatu zaizu gehien?
- Zertan eragin die pandemiak familiakoekin, lagunekin eta, oro har, jendearekin dituzun harremanei?
- Esperientzia honetatik ezer ikasi al duzu? Zer?
- Nola egingo zenioke aurre antzeko egoera bati?

Eztabaida horren ondoren, taldea, “Vecinooo” film laburra ikustera gonbidatu, eta komentaturikoarekin konparatuko dugu. Kontua ez da ea berdin jokatu dugun ohartzea, baizik eta bideoak zer irakasten digun aztertu eta konfinatuta egon bitartean bizi izandakotik guk ere antzeko ondorioak atera ditzakegun ikustea.

Aukeran hobe begiraleek aurretik ikusten badute bideoa, filmak zer balio eta ikasbide transmititzen dituen aztertu eta, gero, horiek guztiak taldearen errealitatera egokitze-ko. Honatx balio eta ikasbide horietariko batzuk:

Entzuketa, umorea une zailenei aurre egiteko baliabide gisa, komunikazio desblokeatzailea; pazientzia; gertukoenen zaintza; keinu txikien balioa; esfortzu bateratuen indarra; besteen alde bizitzeak norberarentzat opari gisa duen garrantzia; solidaritatearen eta zaintzaren kutsagarritasuna; zailtasunetan bat egitearen balioa; zailtasunak zailtasun, bizitzeko gogoari eustea; gertukoena zaintzea beste pertsona batzuk



zaintzeko lehen urrats gisa; besteen oinazea aintzat hartzea norberarena sendatzen hasteko; elkarri lagunduz, gertukoenekin sareak ehuntzea; leihora irtetearen balioa...

Amaitzeko, balkoiaren erreferentzia eta sinbologiaren garrantzia: balkoia, terraza, leihoa irekitzeak, errealitatea bere luze-zabalean erakusten digu. Etxean sartuta egon arren, bizitzari eta besteei lotuta egoten jarraitzeko aukera eman digu. Eta hori gutxi ez, eta ezagutzen ez genituen errealitateak lehen aldiz ikusi ditugu horri esker. Eta horrek sekulako garrantzia izan du, eta oso aintzakotzat hartu beharko genuke aurrerantzean.

Bideoa ikusi eta komentatu ondoren, itzul gaitezen berriz ere goraxeagoko galdera-sortako azken galderetara, eta galdera probokatzaileago bat gehitu dezagun:

- Esperientzia honetatik ezer ikasi al duzu?
- Nola egingo zenioke aurre antzeko egoera bati?
- Zer egin dezakegu, egoera global honek sorturiko espiritu solidarioak bizirik iraun dezan?

Gonbidatu taldea azken bolada honetan ikasitakoarekin lotuta zer konpromiso konkretu har litezkeen aipatzeko. Laguntza modura zenbait adibide eskaini ditzakezu: bizilagunekin hasitako harremanari eutsi; adineko pertsonak edota kalera irteteko zailtasunak dauzkatenak zaintzen jarraitu; aitona-amonengana bisitan sarriago-tan joan; otorduetan telebista itzalita edukitzeko ohiturari eutsi; auzoko, parroko... zaintza-sarea zabaldu.



## Hausnartu eta eskerrak emateko

Utz ditzagun balkoiak eta leihoak zabalik. Etxeak egurasteko, bizitzarekin kontaktua eta perspektibarik ez galtzeko, ikusteari ez uzteko, esanak eta sentipenak partekatzen jarraitzeko... Ez ditzagun gortinak zabaldu, horrek komunitatea ehuntzeko eta besteei gure bizitzan sartzeko bidea emango baitigu. Ez izan leihoak zabalik uztearen beldur. Leihoak zabalik utzi, eta besteak sartuko dira gurera, Jainkoa bera sartuko da, bizitza eta errealitatea sartuko dira, beren oinaze eta pozekin, beren argi eta itzalekin... Baina, batez ere, bestearen bila irten, elkarren hurko bihurtzeko.

# Ireki zure atea

(pastoralsj.org)

SJauna: gure mundura etorri  
eta dei egin diguzu  
gizon-emakume guztiei  
gure bihotzeko atea  
ireki diezaiegun.

Zuk esanda dakigu  
norbaitek atea jotzen  
badigu, zeu zarela  
gurera datorrena.



Zuk esana da:  
"Hara, atean nauzu deika;  
norbaitek ahotsa entzuten badu  
eta atea irekitzen,  
harenean sartuko naiz  
eta elkarrekin afalduko dugu".

Jauna:  
izan gaitzela gure senideen  
bitartez zure ahotsa  
entzuteko gauza,  
eta ireki diezazugula atea,  
zu gurera sartzeko eta, zurekin,  
gizaki guztiei abegi egiteko.

# Hurkoa

(Carlo Maria Martini)

Hurkoa ez da aurrez existitzen den zerbait.  
 Hurkoa egiten den zerbait da.  
 Hurkoa ez da nirekin odol-harremanak dituena,  
 arrazakide edo gogaide dudana,  
 nirekin negozioak egiten dituena...  
 Ezein gizakiren aurrean,  
 berdin da arrotza edo etsaia den,  
 harengana hurbiltzen nauen  
 urrats bat aurrera egin,  
 eta ni neu bihurtzen naiz hurko.



## 3. jarduera

# Eskerrak bizitzari

## Helburuak

- Jabetzea esker-enez eta konpromisoz bizitzeak ematen diola zentzua bizitzari.
- Bizia besteen alde ematen dutenen lana aitortzea.
- Bizia gurekin partekatzen dutenei eta bizia eman zigunari eskerrak ematea.

## Materialak

Idazteko materialak.

*Eskerrak bizitzari bidera:*



[https://www.youtube.com/watch?time\\_continue=1&v=\\_7-vTDV\\_aSA&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?time_continue=1&v=_7-vTDV_aSA&feature=emb_logo)



# Eskerrak bizitzari

(Violeta Parra)

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.  
Begi bi eman dizkit, horiek zabaltzerako  
bikain bereizten dut zuria eta beltza artean  
eta hondoa izartsua zero urrunean  
eta jendetzan gizona, nik dudana maitea.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.  
Entzumena eman dit, bere ahal osoan  
gau eta egun aditzen kilker eta kanarioak;  
mailuak, turbinak, zaunkak, euri-orroak  
eta nire maitatuaren ahots gozoak.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.  
Soinua eman dit eta abezedarioa  
horrekin pentsatutako hitzak eta esandakoak  
ama lagun neba, eta argiaren abaroan  
ikusten dut maite dudan horren arima nora doan.

Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.  
Eman dit nire oin nekatuen ibilia  
horiekin zeharkatu nituen putzuak eta hiriak  
hondartzak, desertuak, ibarrak eta mendiak  
eta zure etxea, kalea eta lorategia.  
Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.

Eman zidan gainezka egiten duen bihotza  
ikustean giza garunaren aitortza,  
ikustean gaiztoarengandik urrun zintzoa,  
ikustean zure begi argien hondoa.  
Eskerrak bizitzari, hainbeste eman dit.

Irria eman dit eta eman dit lantua,  
horrela bereizten dut zoriona eta dolua  
bi horiek dute osatzen nire kantua  
eta kantua bera zuen kantua  
eta guztien kantua da neure kantua.

## Zer egingo dugu?

Bizimodu duina badugu eta gure beharrak aseak baditugu, hori jende askoren lan-eskergari esker da horrela. Gure erosotasuna, eta seguru bizitzea, orain arte anonimoak ziren pertsona askori esker da. Zainketa, babes eta emandakoagatik eskerrak emateko unea da; bai eta nork bere bizitza aztertu eta hemendik aurrera nola bizi eta non egon nahi dugun galdetzekoa ere.

## Esanetik egitera

Lanak duindu egiten gaitu, baldin eta besteen zerbitzura egina bada, lana ospakizun eta zerbitzu da aldi berean. Edozein lan da duina, eta gure txaloa merezi du. Ederki asko jabetu gara pertsona askoren lanak bizitza nabarmen errazten digula. Horrek jende anonimo askoren lana aintzat hartzeko aukera eman digu: bizi garen moduan bizi bagara, hori pertsona askoren ahalegin, lan eta sakrifizioari esker da, eta pertsona horiek orain arte maskararik ez bazeramaten ere, ezezagunak ziren guretzat: ez zeukaten ez aurpegiarik eta ez izenik: ospitalean lan egiten duen bizilaguna; mezulari lan egiten duen lagun baten aita; lagun baten ama, farmazialaria; beste baten amona, okina; hango haren anaia, apal-hornitzaile edo kutzazain dabilena...

Tarte batez, pentsatu denok pertsona horiengan, aurpegia eta izena jarriz.

Horregatik guztiagatik eskerrak emateko ordua da: daukagun bizitzagatik, errazten digutenengatik eta etxean, parrokan, institutuan, auzoan, herrian... gurekin bizi direnengatik. Denak gogoan hartzeko ordua da. Baita, jada, gurekin ez daudenak ere, haiekin ikasitakoagatik, barre eta negar elkarrekin egiteko aukera emateagatik, bizitzaz gozatutakoagatik. Tamalez, azkenaldian gehienok galdu dugu gertuko norbait. Pertsona horien izenak zerrendan idaztea proposatzen dizuegu.

Gero, emandako guztiagatik, maite ditugunengatik eta haiekin partekatzen dugunagatik bizitzari eskerrak nola eman irakasten digun abestia entzun dezakezue. Eta eskerrak eman nahi genizkien pertsonekin zerrenda bat egin dugun bezala, bizitzari eskerrak emateko arrazoiekin beste zerrenda bat egitea proposatzen dizuegu orain.



Esker-ona, baina, herren gelditzen da konpromisorik gabe. Ez da aski jasotakoagatik eskerrak ematea, jasotako hori erabiltzen jakitea da kontua, eta gure lana besteen zerbitzura jartzea, besteek ere beren lana gure zerbitzura jartzen duten bezala. Guk ere besteen alde lan egin dezakegu, gure egunerokoan besteak zerbitza ditzakegu. Jesus Nazaretokoaren jarraitzailetzat baldin badaukagu geure burua, horixe da gure egitekoa. Orain eta etorkizunean.

Zertan zerbitza ditzakegu ba besteak? Azter dezagun gure bizitza perspektiba honetatik: gure iragana, gure oraina eta gure geroaz espero duguna, gauden lekuan bertan besteen garapenaren alde zer egin dezakegun jakiteko.

Irakurri herri-kontakizun labur hau:

*Orain dela mende batzuk, hiri handi eta jendetsu baten aldirietan, bazen meatze bat bertako jende askoren lantokia zena. Bertatik ateratako harriekin eraikiak ziren hiri hartako eraikin bikainenak. Udan, eguerdi aldera, eguzkiak gogorren jotzen zuen garaian, meatze hartan kointziditu zuten hiru senidek, hirurak ere meatzariak.*

*Nagusiak aste osoa lanean jo eta su aritu ondoren, honela kexatu zitzairen beste biei:*

*—Hau jasanezina da, nazkagarria, eguzkiak azala erretzen digu, egarriak hilko gaitu... Eta hasi besterik ez gara egin! Hau lana, mailuari etengabe jo behar petrala. Kapatazak, horrek bai pagotxa! Pare bat ibilaldi, lau agindu eta, iepele!, itzaletara, ardo-zahatoa aldean hartu eta atsedean hartzera...*

*Bigarrenak, anaia nagusiaren ondoan pikotxarekin harria jo eta jo zebilela, honela erantzun zion:*

*—Gogorra da, bai, baina hauxe da daukaguna; zer agindu, horixe egiten dugu guk. Gainera, etxeok ere hor daude, pentsatu haiengan. Haiek zer jan izan dezaten gabiltza gu hemen, meatzean, pikotxari eman eta eman, eta eutsi egin beharko.*

*Biak eztabaidan zebiltzan bitartean, txikienak lanean jarraitzen zuen, erritmo onean harria astinduz, txistua joz eta ahotik irribarre bat zintzilik zuela. Anaiek, beregana jiratu, eta honela galdetu zioten, haren konplizitatea bilatu nahian:*

*—Eta zuri, ez al zaizu bidegabea eta gogorra iruditzen gu eguzki-galdatan harria pikatzen eta sufritzen ibili behar izatea, beste batzuk fresko-fresko itzaletan dauden bitartean?*



*Anaia txikiak tarte batez lan egiteari utzi, bekokiko izerdia sikatu maukarekin, eta, harro-harro, irribarre egiteari utzi gabe, anaiei begiratu, eta esan zien:*

*—Ai, anaiok! Izan ere, ni ez nabil harria pikatzen.*

*—A, ez? —esan zuen nagusiak—. Eguzkiak burua urtu dio, nonbait!*

*—Orduan, zer egiten zabilta, ba? —galdetu zuen erdikoak.*

*—Ni, anaiok, katedral bat eraikitzen ari naiz.*

Nola ikusten duzu zeure burua etorkizunean? Etsita eta kexati? Ala pozik, zure helburu indibidualak baino handiagoa den plan baten parte izateagatik? Nola zerbitzatu nahi dituzu gizartea, komunitatea, hurkoa? Ez daukazu zertan zure bokazioa aldatu beharrik; besteak zerbitzatzeari buruz ikasitakoa oinarri hartuta zure bokazioa berrikustea da kontua.

Bete hemen beheko taula hau, eta, gero, otoitzerako tartean, erabili taulan idatzitakoa gainerako hausnarketekin batera.

<b>Iraganean, zer egin dut / eman dut besteen alde?</b>	<b>En el presente, qué hago por/ doy a los demás.</b>	<b>En el futuro cómo quiero ayudar/ servir al otro.</b>
---------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------

## Hausnartzeko eta eskertzeko

BIZITZARI eskerrak ematea hura eman digunari eskerrak ematea da: beti gure ondoan egoten denari eta bizitzea bizia besteen alde ematea dela jabeazten gaituenari eskerrak ematea; bizitzak, zentzua izango badu, goitik behera busti beharra dakarrela irakatsi digunari eskerrak ematea; besteak maitatzearen eta ahulenei laguntzearen arriskuak asumitu eta hurkoari atea irekitzea zeinen garrantzitsua den ikusarazi digunari eskerrak ematea. Hortxe dugu Jesusen adibidea, bizia gure alde eman zuena, eta komunitatearen, gure elizaren, gure parrokiaren, gure taldearen... babesa.

# Eskerrak bizitzari

(Javier Fonseca)

Eskerrak bizitzari eta hura eman zigunari,  
laguntzen digunari eta jada hemen ez dagoenari.

Eskerrak bizitzari, inguruan bor-bor  
dagoenari, eta iristear denari.

Eskerrak bizitza handi eta txikiari,  
bizitza oro baita graziaz eta zentzuz betea..

Eskerrak amets egiten duenaren bizitzari,  
eta gogoz eta gorputzez bizi denari.

Eskerrak egunero duinki lan eginez  
bizia besteen alde ematen duenari.

Eskerrak hunkitzen gaituen bizitzari,  
dohain jainkotiarrenaren eredu denari.

Bizia mintzo da,  
baina ez hitz edo bertsoen bidez,  
ez poema edo abestien bidez,  
ez xuxurlaka,  
ez oihuka.

Mintzo da, lehenik,  
zaurituari besarkatzean  
eta egarri denari ura ematean,  
abailduak bizkar  
gainean hartzean  
(bestela, nork eramango ditu?)

Mintzo da bizia  
barkamen zintzoaren bidez,  
errespetuaren bidez,  
senidearen eta lagunaren  
eta maitale betierekoaren  
maitasun zinezkoaren bidez,  
gose denari jaten emateko  
atondutako mahaiaren bidez.

Bizia isiltzen bada,  
poema, oihua, abestia...  
...dena da hitz hutsal.  
Baina ekintza mintzo badira,  
keinuek abesten badute,  
bizia oihuka hasten bada,  
hori ebanjelioa da.

# Bizian den mintzoa

(José María Rodríguez Olaizola, sj)

